

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

UDAL BIDE PUBLIKOEN LURRAREN, HEGALKINAREN ETA LURPEAREN ERABILERA PRIVATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAREN BESTELAKO KASU BATZUK

1.artikulua: KONTZEPTUA

Udal eraikinen aprobetxamendu berezia erregulatzeko, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa ezarri da, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 28ko 7/1985 legearen 106.artikuluak emandako ahalmena erabiltzeko eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21.artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita. Tasa hori ordenantza fiskal honek eraenduko du, eta haren arauak Foru Arau horren 22.artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko dute.

2.artikulua: ORDAINARAZPENAREN XEDEA

Udal jabari publikoaren eraikinen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia izango da ordainarazpenaren xedea.

3.artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboen eta aprobetxamendu berezien tasen subjektu pasiboak (zergadunak) Zergei buruzko Bizkaiko Foru Arau Orokorraren 34.3 artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko, juridiko eta entitateak izango dira, betiere udal jabaria onura partikularrerako baliatzen, erabiltzen edo ustiatzen dutenean.

4.artikulua: OINARRI EZARGARRIA

Dagokion aprobetxamenduak dirauen denborak, lizentziaren arabera baimenduriko okupaziorako azalera edo benetan okupatuak, eta aprobetxamendu horren ondorioz merkatuan izango lukeen erabilgarritasunaren balio erreferentziatzat harturik, osatzen dute Ordenantza honetan araututako tasen kobrantza-oinarria.

5.artikulua: TRIBUTU-KUOTA

AF – E 39



.- Artikulu honetan xedatzen denaren arabera, zergaren kuota tarifa bat edo ezarritako kopuru finko bat izango da:

1.- Nestor Basterretxea Aretoa erabiltzea:

Nestor Basterretxea Aretoa erabiltzea	
Zinema, antzerki, musika emanaldietarako erabiltzea	50,29 € orduko
Erakusketa gela bat erabiltzea	162,95 € eguneko
Erakusketa gela bi erabiltzea	231,33 € eguneko
Areto sarreren salmentako takila erabiltzea	13,17 € orduko

Areto horren erabileratik aparte, beste zerbitzu batzuk erabili gura badira, tarifa hauek ordainduta egin ahal izango da:

- Erakusketa zaintzea.....: 7,31 euro orduko
- Jesarlekuak egokiaraztea egokitzea: 12,47 euro orduko
- Gonbidatuei harrera ematea egitea.....: 12,47 euro orduko

2.- Gizarte eta Kultura Etxeko gelak erabiltzea: Eranskinean agertzen da.

.- Aurreko epigrafeetan ezarritako tasak ez dira aplikatuko herriko irabazi asmo bako elkarteek edo taldeek antolatzen dituzten ekimenetan eta gizarte, kultura edo kirol laguntzarako helburuarekin antolatzen diren ekimenetan.

6.artikulua: SORTZAPENA

- Tasa ordaindu beharra sortuko da erabilera pribatiborako herri jabariaren baimena ematen den unean bertan.

7.artikulua: KITAPENA ETA ORDAINKETEA

- Udal eraikinen aprobetxamendu pribatiboagatik jarritako kuotak erreserba egitean ordainduko dira.
- Tarifen arabera behartu daitezkeen zenbatekoak eskatutako edo erabilitako aprobetxamendu bakoitzagatik ordainduko dira eta dagozkien epigrafeetan adierazitako denbora naturalengatik ateratzen dena izango dira.

AF – E 39



- Ordenantza honetan adierazten diren tasen likidazioa eta ordainketa aitortpen-autolikidazioaren araubidearen bidez egingo dira oro har, zerga-administrazioak Berhaz bulegoan horretarako eskuragarri jarriko duen eredu ofizialaren arabera.
Aitorpena aurkezteko egintzan bertan ordaindu beharko da kuota hori.
- Tasa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabari publikoaren erabilera eskubidea garatzen ez denean, dagokion zenbatekoa itzuli egingo da.

AZKEN XEDAPENA:

Ordenantza hau behin betiko onetsi du Udalbatzak 2017ko abenduaren 22an egindako Osoko Bilkuran, eta argitaratu dira 2017ko abenduaren 29an BAO 247. zk. Halanda ze, indarrean jarraituko du harik eta beren beregi aldatu edo indarririk barik utzi arte.

III ERANSKINA: KULTUR ETXEKO GELAK ERABILTZEAGATIKO TASA

Ordutegiaren araberrako erabilera txandak honela zehaztu dira

	Astegunak = 1	zapatuak = 2
goizean	09:30 - 14:00	10:00 - 13:00
arratsaldean	16:30 - 21:45	16:00 - 20:00

Txandea	Noiz
1.1	Astegun goizetan- 9:30etik 11:15era
1.2	Astegun goizetan- 11:30etik 13:45era
1.3	Astegun arratsaldeetan- 16:30etik 18:30era
1.4	Astegun arratsaldeetan- 18:45etik 21:30era
2.1	Zapatu goizetan- 10:00etatik 11:15era
2.2	Zapatu goizetan- 11:30etik 12:45era
2.3	Zapatu arratsaldeetan- 16:00etatik 17:30era
2.4	Zapatu arratsaldeetan- 17:45etik 19:45era

BIGARRENA: Instalazio mota eta txanda kopuruaren arabera tasa hauek zehaztu dira:

TXANDA KOPURUA

Erabilgarriak	Zer/zerbitzua	Erabilera	Txanda bat	Txanda bi	Hiru	Lau txanda
----------------------	----------------------	------------------	-------------------	------------------	-------------	-------------------

AF – E 39



					txanda	
Sotoa	1. Musika entsaio gela	rock taldeak	27,19	30,07	32,94	35,81
Sotoa	2. Musika entsaio gela	rock taldeak	27,19	30,07	32,94	35,81
Sotoa	3. Musika entsaio gela	rock taldeak	27,19	30,07	32,94	35,81
Sotoa	4. Musika entsaio gela	rock taldeak	27,19	30,07	32,94	35,81
Behea	Batzar gela	eskariarekin	26,93	29,54	32,16	34,77
1. solairua	A entsaio gela	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	30,25	36,18	42,11	48,03
1. solairua	B entsaio gela	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	29,66	35,00	40,35	45,69
1. solairua	C entsaio gela	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	31,45	38,58	45,71	52,84
1. solairua	D entsaio gela	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	29,83	35,35	40,87	46,38
1go. Solairua	E entsaio gela	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	40,04	55,76	71,48	87,20
1. solairua	Biltegia eta aldagelak	Musika eta dantza taldeak eta musika eta dantza ikastaroak	30,07	35,81	41,56	47,31
2. solairua	Taldean lan bulegoa	kultur taldeen lanerako 6 bulego	34,12	43,91	53,71	63,51
2. solairua	1. Batzar gela (5)	10 lagunentzako batzar gela	26,54	28,76	30,98	33,20
2. solairua	Erabilera askotako A gela	12 lagunentzako batzar gela: eskariarekin taldeak, udalak eta kanpokoak	27,88	31,45	35,01	38,58
2. solairua	Erabilera askotako B gela	12 lagunentzako batzar gela: eskariarekin taldeak, udalak eta kanpokoak	27,74	31,16	34,59	38,01
2. solairua	Erabilera askotako C gela	12 lagunentzako batzar gela: eskariarekin taldeak, udalak eta kanpokoak	27,78	31,23	34,69	38,15
2. solairua	Erabilera askotako D gela	20 lagunentzako batzar gela: eskariarekin taldeak, udalak eta kanpokoak	28,87	33,41	37,96	42,51
2. solairua	1 tailerra	Eskariarekin eta Kulturak antolatuta	34,24	44,16	54,08	64,01
2. solairua	2 tailerra	Eskariarekin eta Kulturak antolatuta	32,07	39,83	47,58	55,34
2. solairua	3 tailerra	Eskariarekin eta Kulturak antolatuta	29,84	35,37	40,89	46,41
2. solairua	biltegia	Eskariarekin eta Kulturak antolatuta	26,28	28,24	30,20	32,16
3. solairua	Hitzaldi aretoa	40 lagunentzako aretoa: eskariarekin taldeak, udalak eta kanpokoak	31,11	37,90	44,70	51,49
3. solairua	Batzar gela	12 lagunentzako batzar gela: eskariarekin taldeak, udalak eta kanpokoak	27,19	30,07	32,94	35,81

AF – E 39



AF – E 39

